



Antsoaga

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Antzúa

“... la casa rústica titulada Ansuagagoicoa... de la cofradía de Oca[ango] de la anteiglesia de Berriz... se compone de piso llano con cocina y tres cuartos, cuadra y tejabana de aditamento y de piso superior destinado a camarote y pajar, y mide su planta una superficie de trescientos treinta y tres metros cuadrados... la tejabana o cuadra situada frente de la casa... mide una planta de ciento cuarenta y dos metros cuadrados...”
DJE 6/114 or. (1895)



43° 10' 5"

2° 33' 16"

Berriz Iruditan / T. Angoitia

Topatutako lehen arrasto dokumentala 1704koa da, eta bertan, Okango kofradiaren baitan agertzen den baserri bati erreferentzia egiteko erabiltzen da izen hau. Bizkaiko su-erroldean *Ansoaga* moduan dokumentatzen da (1704, 1745 eta 1796), eta gerora, batzuetan ahozko forma ere erabilia izan da zenbait idatzitan: *Ansua* (DJE, 1870, 2/ 226. or.). Auzokoen artean, *Antzúa* moduan ezagutzen da baserri hau.

Erabat berritutako baserri-etxea da. Bi isurkiko teilatuaren azpian, simetrikoki antolaturiko fa-

txada dauka, pisu bitan eta ganbaran banatua. Pisu bietan lau dira baoak: behekoan, hiru leiho eta atea, alde batean kokatuta erdian barik, eta lehenengoan, aldiz, lau leiho. Ganbaran, ostera, bi leiho baino ez da, eta gailurraren azpian, txori-tokiak. Dirudienez, fatxadak luziturik eta pintatuta izango zituen, baina azkeneko berrikuntzan ganbara aldean utzi zuten horrela, behekoan harlangaitza desestaltita. Gaur egun, leihoen eta atearen ertz guztiak harlanduz inguratuta ageri dira, dobeladun dintelaren giltzarria azpimarratuz. XIX. mendeko etxea dirudi.

toponimia

Erdi Aroko izen erabilienetako bat izan Antso, erdaraz Sancho, besteak beste Nafarroako errege batzuen izena izan zen. Antso hau latineko *santius* izenetik sortu bide zen. Bigarren osagaia -aga atzizki arrunta da. Ahoz Antzoa esaten zaio ohikoa baita bokalen arteko g jatea eta tz erabiltzea, Bizkaian ez baita ts ahoskatzen.